

KEK, AICE-IZEAK ETA IKASTETXEEK EPAIA BETE BEHAR DUTE: ESKOLA-ORDU BAT MURRIZTU ETA ORDU HORI LAN PERTSONALERAKO BIDERATU

Greba Amaierako Akordioa (GAA) sinatu zenetik 2 urte igaro dira, eta KE eta AICE-IZEA patronalek sinatutakoa bete gabe jarraitzen dute.

Hauek dira ez-betetzeak:

- Ez dute eskola-ordu bat murriztu etapa guztietan 25-26 ikasturtetik aurrera.
- Ez dute lan pertsonalerako ordu osagarri bat gehitu 25-26 ikasturtetik aurrera.
- Ez dute Tutoretza-plusa eguneratu sinatutako % 16ko igoerarekin.
- EZ diete % 16ko soldata-igoera ordaintzen DBH, Batxilergoa eta LHko langileei, eta %15,43ra murriztuko dute 2025eko urtariletik aurrera.
- Ez dute gela ixteagatik kaleratuz gero, lan egindako urte bakoitzeko 26 eguneko kalte-ordaina denbora-mugarik gabe ematen.
- Lanpostuak mantentze aldera adostuta zeuden 3 bilerak eta birkokapen prozedurako moldaketak ez dira gauzatu.

Ez-betetze horiek EAEAN-k sektoreko langileen alde emandako bi epairen ondoren ere gertatzen dira. Soldatak eguneratzera behartzen zituen patronalen aurkako lehen epairaren ondoren, KEk eta AICE-IZEAK men egin zioten eta hitzartutako soldata-igoerak aplikatu zituzten. Orain, enegarren epaia dute berriz ere kontra, eta bertan adierazten die eskola ordu bat murriztu eta lan pertsonalerako ordu osagarri 1 gehitu behar dutela. Epairaren arabera, sektoreko langileak lan egitera behartu dituzten gehiegizko eskola-orduak ere konpentsatu behar dituzte. Espero dugu, GAA betetzen ez badute ere, gutxienez EAEANren epaia betetzea. Epaia onartu ez eta errekurrituko balute, sektoreko 9000 langileekiko errespetu falta gisa ulertuko genuke.

Patronalek eta ikastetxeek GAA bere osotasunean aplikatzen dutenean, hitzarmen berriaren sinadura geratuko litzateke, non STEILAS, CCOO, LAB eta UGTk ez dugun langileen eskubideetan atzerapauso bakar bat ere onartuko. Hitzarmen berri bat nahi dugu, baina, hori izateko premiak ez gaitu eskubideen galera onartzera eramango. 29 greba egun bete genituen, eta ultraaktibitatean dugun hitzarmenean ondo baino hobeto jasota dauden eskubideak irabaztea lortu genuen. Ondoren, 14 eguneko greba bete genuen, eta GAAn jasotako eskubideak batzea lortu genuen, eta epaiak onartzen du hitzarmen maila duela hitzarmen berri bat sinatu arte.

Urtarrilaren 29ko epairaren ondoren, Negoziazio Mahaia deitu zen, eta gaur LHKra etorri gara esatera KE eta AICE-IZEA patronalei errespetu ditzatela Gizarte Ekimeneko Irakaskuntza Pribatuko 9000 langileak, bete ditzatela sinatutako akordioak eta bete ditzatela epaiak. Beraz, etapa guztietan eskola-ordu 1 murriztu behar dute, lan pertsonalerako ordu osagarri 1 gehitu, tutoretza-plusa eguneratu, DBHko, Batxilergoko eta LHko soldatak % 16ko igoerarekin ordaindu, eta lan egindako urte bakoitzeko 26 eguneko kalte-ordaina eman behar diete ikasgela ixteagatik lanpostua galtzen duten langileei, denbora-mugarik gabe. Halaber, exijitzen diegu mahai gainean jar dezatela hitzarmen proposamen bat, GAAn jasotako langileen eskubide guztiak jasoko dituen, aurreko hitzarmeneko eskubide bakar bat ere galdu gabe. Hori lortzeko, STEILAS, CCOO, LAB eta UGTk eskura ditugun baliabide guztiak erabiliko ditugu, bai juridikoak, bai ekintza sindikala.



KE, AICE-IZEA Y LOS COLEGIOS DEBEN ACATAR LA SENTENCIA QUE LES OBLIGA A REDUCIR 1H LECTIVA Y A AUMENTAR 1H PARA TRABAJO PERSONAL

Han pasado 2 años desde la firma del Acuerdo Fin de Huelga (AFH) y las patronales KE y AICE-IZEA continúan sin cumplir lo firmado.

Los incumplimientos son los siguientes:

- No han reducido 1h lectiva en todas las etapas a partir del curso 25-26.
- No han aumentado 1h complementaria para trabajo personal a partir del curso 25-26.
- No han actualizado el plus de tutoría con el 16% de aumento firmado.
- NO pagan el 16% de incremento salarial a los y las trabajadoras de ESO, Bachillerato y FP, reduciéndolo al 15,43% a partir de enero de 2025.
- No indemnizan con 26 días por año trabajado sin límite de tiempo en caso de despido por cierre de aula.
- Dentro del mantenimiento de empleo no se han llevado a cabo las tres reuniones pactadas y tampoco se ha mejorado el procedimiento de recolocación.

Estos incumplimientos se producen incluso después de dos sentencias del TSJPV a favor de los y las trabajadoras del sector. Tras la primera sentencia contra las patronales donde les obligaba a actualizar los sueldos, KE y AICE-IZEA, la acataron y aplicaron los incrementos salariales pactados. Ahora vuelven a tener la enésima sentencia en contra donde les indica que deben reducir desde ya 1h lectiva y aumentar 1h las complementarias para trabajo personal. Según la sentencia también deben compensar el exceso de horas lectivas que han obligado a trabajar a los y las trabajadoras del sector. Esperamos que, ya que no están cumpliendo el AFH, al menos, acaten la sentencia del TSJPV. En el caso de que no acataran la sentencia y la recurrieran, lo entenderíamos como una nueva falta de respeto para con los y las 9000 trabajadoras del sector.

Una vez las patronales y los colegios apliquen el AFH en su totalidad, quedaría la firma del nuevo convenio, en el que STEILAS, CCOO, LAB y UGT, no aceptaremos ni un solo retroceso en los derechos de los y las trabajadoras. Queremos un nuevo convenio pero la urgencia por tenerlo no nos va a llevar a aceptar pérdida de derechos. Completamos 29 jornadas de huelga y conseguimos ganar una serie de derechos que están perfectamente recogidos en el convenio que tenemos en ultraactividad. Posteriormente completamos 14 días de huelga y consiguieron sumar los derechos recogidos en el AFH y que la sentencia reconoce que tiene nivel de convenio hasta la firma de un nuevo convenio.

Tras la sentencia del pasado 29 de enero, se convocó la Mesa de Negociación y hoy hemos venido al CRL a decir a las patronales KE y AICE-IZEA que respete a los y las 9000 trabajadoras de la Enseñanza Privada de Iniciativa Social, que cumplan los acuerdos firmados y que acaten las sentencias. Así pues deben reducir 1h lectiva en todas las etapas, aumentar 1h complementaria para trabajo personal, actualizar el plus de tutoría, pagar los sueldos en ESO, Bachillerato y FP con el incremento del 16% e indemnizar con 26 días por año trabajado y sin límite de tiempo a los y las trabajadoras que pierdan el puesto de trabajo por cierre de aula. También les exigimos que pongan sobre la mesa una propuesta de convenio que recoja todos los derechos de los trabajadores del AFH y sin perder ninguno de los derechos del convenio anterior. Para conseguirlo STEILAS, CCOO, LAB y UGT utilizaremos todos los medios a nuestro alcance, tanto los jurídicos, como la acción sindical.

